


ZER
ALDIZKARIA

421. zenbakia
2015 GABONILLA

Bizkaitarrei
Bizkaieraz



www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com

ZORION ETA URTE BARRI ON



Bizkaia Irratia,
zintetatik digitalera



BIZKAIA
irratia

1990 - 2015

F.M. 102.6

Euskalerrian euskeraz EUSKERA ZALEAK

2015-2016 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 48. IKASTAROA IRU MAILLA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 13an

48. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 13 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitamabost euro) kontu onetan:

EUSKERA ZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
ES28 2095 0000 74 2000089615

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 35 €.

Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.

Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

BIZKAIA IRRATIA, ZINTETATIK DIGITALERA

Euskerazaleak elkartea

25 urte bete ditu aurton Bizkaia Irratiak eta ospakizun giroan dabil urte osoan. Orainsu, urriaren 30-31n, 25 orduko irratia maratonia egin eben, betetako urte bakotzeko ordubete.

25 orduen amaieran irratiaaren altxorraren aurkezpenera egin zan: sistema informatikoak erabilten asiarako audio grabazioen digitalizazio prozesuarena ain zuzen be.

Bi mila eta pikura arte ez ziran asi sistema informatikoak erabilten Bizkaia Irratian. Ordura arte, zuzenean egin ezin zana edota gerorako gordeta geratzea gura zana, revox edo kaset zintetan grabatu eta gordeten zan. Grabazio ordu asko dago formatu batean eta bestean, 600 ordu baino gehiago. Ondare galanta beraz.

Kontua da formatuok iraungitzeko data dabela, zintek denporearen poderioz kalitatea galtzen dabelako eta azkanean usteldu eta balio barik geratzen diralako. Beraz, zintetan egon leitekenaren balioaz konturatuta, fondoak galdu ez daiten, Bizkaiko Foru Aldundiari egin jakon digitalizaziorako diru laguntza eskaria. Elburu bigaz batez be: revox eta kaset formatuetan dagoen fondo balioak ez galtzea, eta bein berreskuratu ondoren material interesgarrienari erabilera publikoa emotea. Erabili gura dauen edonoren esku ipiniko litzate-



ke. Aldundiak baietza emon eutsan digitalizaziorako laguntza eskariari, eta martxan dago.

Orain arte material ugari agertu da digitalizatzeko revox eta zintetan: irratiaaren sorreraren ganeak, idazleak, bertso saioak, trikitilariak, eliz gaiak, garaiko kirolariak...

Digitalizazioa egite prozesuan dago orain. Labayru fundazioa eta Bizkaia Irratia dabilz egiten. Labayru ar-





duratuko da etiketazinoaz eta katalogazinoaz egiteaz. Bein lan ori eginda dagoenean, ikusi bearko da zein eratako materiala dagoen, erabilgarria ete dan, eta olan balitz erabilera publikoa zelan emon pentsau bearko litza-tzeke.

Baina garrantzitsuena da iraungitze epea daben formatoetatik gerorako baliogarriagoak diran beste batzuetara biurtzeko prozesua asita eta aurreratuta dagoela. Olan ba, altxor andia dan fondo ori ez da galduko eta betiko geratuko da gordeta.

Audio digitalizazio prozesuaren aurkezpena 25 orduko etenik bako irrati saio bereziaren amaieran egin zan. Saio bete-betea eta oparoa izan zan. Goiza irratiaren asiareari eta 25 urte bete dituen beste alkarte, talde eta erakunde batzuei eskeinitakoa izan zan. Arratsaldean musika saio bereziak, orain 25 urteko musikeari lekua eginda. Gabaz kirol tarte berezia egon zan, garai aretako protagonistekin: Katxin zestalaria, Marino Lejarreta eta Miguel Madariaga txirrindularitza mundutik eta abar...Goizero egiten dan Zoriona-



gurrak tartea gabaz be euki eban lekua, musikea zuzenean entzuteko era eta guzti: Roberto eta Kepa trikitilariak eta Kupa taldea egon ziran Bilboko estudioan gau giroa alaitzen. Goizaldekoa be ez zan izan makala, gauerditik goizeko zortzirak arte makina bat jente pasau zalako Bizkaia Irratiaren Bilboko estudioetatik: Rafa Rueda, Sei Urte, Seiren, Gontzal Mendibil, Bost Enbor, Kherau... idazleak be bai: Jon Arretxe, Laura Mintegi, Gotzon Barandiaran...konexinoak atzerrian bizi diran bizkaitarrekin, diasporakoekin, urtean zearreko kolaboratzaile eta tertuliakideak...

Saioari Hesperia Bilbao hotelean egindako gosari-topaketeagaz emon jakon amaiera biribila, bertatik zuzenean emitiduta. Eusker eta kultura munduko jentea konbidau eban gosaltzera Bizkaia IrratiaK, eta giro orretan egin zan aspaldiko audioen digitalizazio prozesuaren aurkezpena.

Urrengo pausuak digitalizazioa amaitzea, katalogazioa egitea eta materiala jentearen eskura ipintea izango dira.





Nikole

Arantza Leniz "Amoma"

EUSKERA ZALEAK ALKARTEA. BILBAO.
2014ko sari leiketa.

Nikole 27 urteko idazlea da. Oso gaztetan asi zan umeentzako ipuinak idazten, amaren bide bardina jorratuz.

Azkenaldian izkirik bildu ezinik ebilen. Ideien otzara ere agorturik eukon aspalditik.

Egoera orreri buelta emon gurean bidaia bat prestatzen asi zan, kultura ezberdin bateko errialderen batera ain zuzen. Izan bere betidanik erakarri dute Nikole errialde arabiarrek, batez ere Maroko. Orren kilometro gutxiren barruan Atlas mendiez, desertuaz eta kostaldeaz disfrutatzeko erea dagoelako.

Marokora bidaiatzeko asmoa aspalditik eukon Nikolek, Lacen ezagutu ebanetik ain zuzen. Bi mila eta zortzigarren urtean gertatu zan ori. Lacen Euskal Herrira etorria zan berton gidari titulua ateratzeko eta gaztelera ikasteko. Kafetegi bardinean suertatzen ziran biak. Nikolek dena galdetzeko joera eukon, beste kul-



turei buruz jakin min andia eukalako, eta Lacenek izkuntza praktikatzeko aukera ikusirik lagun andiak egin ziran.

Lacen Marokora bueltatu zanean Nikole gonbidatu eban bere ezagutzera. Sei urte beranduago aukera ezin ohea iruditutako jakon Nikoleri bidaia ori burutzea, bere burua ideia berri eta freskoez betetzeko.

Maletak egin eta konturatu orduko frantsesez berbertan egoan Marokoko aireportuan. Zenbat eskertu eban bere laguna bere bila aeroportura joan izana, izan bere frantsesez ez zan ondo moldatzen Nikole. Lacenek eskutik artu eta furgonetaraino eraman eban Nikole, turistei logelak eta kotxea eskaintzan eutsien guztiengandik libratuz.

Marokon azoka batera eraman eban Nikole Lacenek, afarirako bearrezko gauzak erosteko aprobetxatuz. Azokan bearrezko guztia eros eitekean, asi janaritik, arropak eta etxe tresnekin bukatu arte. Deigarria zan bertako jendearen janzkera, txilaba eta babutxekin. Emakumeek zapia eroien buruan eta gizonak txano txiki bat. Espezia usaina ere nabaria zan airean. Nikoleri zail egiten jakon espezia desberdinak bereiztea.

Marokoko uriburuan bazterrak ikusten ibili ondoren, iluntzerako Imlil errira joan ziren, Lasenen errira aintuzen. Afaltzeko kuskusa eta tajin-ea egindako artxoa prestatu eban Lacenen emazteak. Nikoleren zat oso gozo egon zan dana. Afal ostean berbena belarren infusioa prestatu eban Lacenek, berbenak lo obeto egiten laguntzen dauelako. Gauaro ikusgarria aprobetxatu eban Nikolek, Marokon igaro-



ko ebazan egunak planifikatzeko. Ezinbestekotzat jotzen ebelako Atlas mendilerroko gailurrik garaiena dan Toubkal igotzea, Todraño zintzurrean barrena paseatzea eta bukatzeko Essaouira kostako errixka bizitatzea.

Nikole leer eginda egoan eta bere gelara abiatu zan atsedean artzeko, baina lo gozoaren atzaparretan murgildu aurretik idazle askok bezala, egun guztian gertatutakoa idaztea pentsatu eban, libururen baterako erabilgarri izatekotan. Orretarako Lacenek azokan idazmaai zaar bat erosi eban Nikoleren idazteko grinaz gogoraturik. Eta maai aren aurrean eseri eta idazteari ekin eutson Nikolek, loa bere begiez jabetu arte.

Urrengo goizean Imlil ikustera eramán eban Nikole Lacenek. Adobezko etxeak, teilatua bearrean terraza eukien udako beroan bertan lo egiteko. Mendiko elurrak urtzean sortutako emari andidun errekek zearkatzen eben erria. Ardiak eta auntzak larrean egozan lasai-lasai bazkatzen.

Umeak kale estuetatik korrika ebizen, eta turistek "mesie bonbon" eskatuten.

Erritarrek oso arrera beroa egin eutsien Nikoleri eta danek gonbidatu gura eben eurenera te bat artuteko. Erria erreka ondoan egoan, orrela bearrezko eben ura errekatik lortuteko.

Orregaitik erria naiño orlegia zan, baina inguruak oso leorrak ziran, belar baxuarekin eta marroi kolorea eukon.

Bazkaldu aurretik beste apur bat idaztea erabagi eban Nikolek, gainera asko gustetan jakon Lacenek erositako idazmaia, eta joan aurretik berarekin eramán al eban galde-



tu bear eutsola pentsatu eban. Maai aurrean jarri zan eta ezusteko itzela artu eban, izan be aurreko gauean idatzitako dana falta zan, orriak edurra bezain zuri egozan. Lacenen broma bat zalakoan beregana joan zan, baina beraren ezusteko, berriro be, Lacenek ez ebala bere idatzirik artu esan eutson. Orduan berriro astea beste aukerarik ez ebala konturatu zan. Luze idatzita eukan Lacenen deiadarra entzun ebanean. Oraingoan boligrafoa ondo kokatuta utzi eban norbait bere maaiari ibiltzen bazan konturatuteko.


Bazkaltzeko Lacenen emazteak arroza prestatu eban, eta postrea bertako pasta batzuk izan ziran. Azukera askoko pastak ziren, datil eta pistatxoak apainduta. Altuera orretan, ia bi mila metro tara egoalako, energia berreskuratzeke oso egokiak zirala esan eutson Lacenek.

Bazkal ostean betiko moduan siesta egitera joan zan Nikole bere gelara. Gainera jakin min andia eukan ea berak idatzitakoa an baegoan edo ez ikusteko.

Ezin sinisturik egoan, ez egoan ezer idatzita eta boligrafoa berak itxitako moduan egoan, sano arraroa benetan!

Maaiari begira aurkitu eban Lacenek Nikole, aurpegi pentsakor eta zurbilagaz. Nikolek barriro galdetu eutson ia bera izan dan orriak kendu deustozana. Lacenek barriro ezetz esan eutson, eta ori esanaz batera arrakada batzuk ipini eustozan Nikoleri eskuan. Nikolen eskua ez egoan arrakada orrek artzeko prestatuta eta lurrera erori ziran. Orduan Nikolek bere barne gogoeta itxi eta arrakadak artutera makurtu zan maai azpira. Arrakadak artu eta altxetan joan zanean maaiak tiradera ezkutu bat eukola konturatu zan. Tiraderatik tiratu eta bere sorpresa zein izan zan; berak idatzitako zirriborroak nobela batean eraldatuak izan zireala. Sano nobela polita gainera. Nikolek nobela bere maletan sartu eban, bueltan bere argitaletxeari erakusteko.

Euzkadira bueltatu zenean bere argitaletxearekin jarri eban itzordua. Eta erantzuna zein izango eta argitaruko ebiela. Urteko nobelarik onena saria lortu eban, eta Nikolek Laceneri esan eutson; maai ori erosi eutson pertsonari eman gura eutsola sariaren dirua, berak baino bearrian geiago eukolako.



BIZKAIKO OKINA

Alfonso Ezkurdia "Laztana"

EUSKERA ZALEAK ALKARTEA. BILBAO.

2014ko sari leiaketa.



Bizkaiko antxiñako baserri zaar baten, neska polit bat, irribarretsu eta lerdan bizi zan.

Izakera atsegina eta begikoa batera.

Goizero, egunsentian, erriko okindegi-ra joaten zan, baso, mendi eta atx arte-tik inguratuta.

Era berean, entzutetsu, ospe andiko leku bat.

Barruan, ango baserritarrak batuten ziran. Balitzako kontuak eta jazoerak Arratiako aranerik buruz, egiten eben berba, luzaroan, astiro astiro, batez be, goizetan.

Urrunean, etxe txikerrak. Ostantzean, ur, zidor orlegiak.

Okina, notin on ona eta apala. Oso trebea ogibide eder orretan.

Gura eban, bizitza lasaia eroatea, baina aidi berean, arduradun.

Umetxu batzuk, eskolatik etxerantza joiazanean, agurtu oi eben neskea, txaloka eta zarataka.

Aren amama, jakintsu, esku gogortuetan, oreka urunez beteta eukan. Baita, olxalo baten ganean, bearra erakutsi oi eban, griñaz eta zaletasunez.

Bera nabarmendu zan, bere aldietan, ogikina onenetariko bat lez eta aolku zuurrak irakasten eutsazan ilobetxuari. Onek, adi egoten, betiko legez, pozik eta eskerrak emonaz.

Gurasoak, izatez, Dimostarrak, naiz eta Zeanurin bizi.

Asko maite eben alabea, eguneroko zeregiñetan lagunduz.

Orren arira, salmentak orokorrean, aurrerantza, betiko moduan.

Ogixe samurra, merke merkea. Labatik arako ogie zan eta.

Erabilitako osagaiarik garrantzitsuenak, ona emen: ure, gatza, legamie eta urune.

Atsegin izaten jako bero bero saldutea.

Barrutik, olio a euk en. Abegi zoragarrie erritarrentzat, kanpotarrentzat eta lekutatik etorritako ozte askorentzat, beraiz udan.

Saltokie, egunero, zabal duta egoan, Domeketan eta jai egunetan izan ezik.

Mota eta era guztietako gauzatxoak, ikusi eta erosi aal izaten ziran. Esate baterako: gazta, ez tie, esnie, gatzatu, gurñe, igalie, ogi tartekoak eta kopautxuk be bai.

Bearrean ez e bilenean, gogoz eta begitaziño aundiz.


Gorbeia maite izan eban, izadie, edestie, edertasuna eta nortasuna, guztiz ezagututa euskaldunen artean.

Ipuin onetako ardatza, Izaskun, okina, irakurzale amorratua.

Berari esker, bertoko euskerie, polito gordeta, gizaldietan zear, jatorrizko kutsue galdu barik.

Egun baten, gabaz, oean etzunda, adoretu eta konortea eutsiz, il zan.

Bere gomuta, gure artean, betirako egongo da.



Arrain andiarena

- 1.- Mila zortzireun larogei ta amar garren urtian sarturik,
april illaren ogeigarrena
jarri da señalaturik
Españan eta Estranjerian
guziak aotan arturik
bota dituzte paperak danak
oso gloriaz beterik,
“Ondarroarrak aiek mutillak”
ez da entzuten besterik.
- 2.- Egun orretan zer egin zuten
emengo arrantzaliak
mundu guztiak jakin dezaten
jarriko du istoriak,
begira danok papera oni
zabal zabalik begiak,
gezurrik gabe jarriko ditut
pasatutako egiak,
baldin laguntzen badit onetan
gure Jaunaren graziak.
- 3.- Berrogei eta bat oñak luze
dauzkan treñeru batian,
amar gizon eta iru mutillak
itxasora atea ziran,
geienez ere legorretikan
izango ziran iru millan,
bildurgarrizko arrain aundi bat
azaldu zan oien jiran,
ta bereala persegitzeko
gogoz preparatu ziran.
- 4.- Isidoro Elu oien patroiak
esan zien laguneri,
nai ba dezute arrimatzia
gustoria egingo det ori,
boga aurrera ara nun dagon
gero kontuan egon guztiok
miñik egin gabe iñori,
tiburoi kasta gaizto itxurako
arraiz itzala da ori.
- 5.- Allegatzian bere aurrera
tira ondo arponada,
ia mutillak, leku onian
sartu iñola al bada,
txikotak listo arriatzeko
arrain oso aundia da,
galduko gaitu guzti guziok
ondo trinkatzen ez ba da,
artu labanak, ebaki sokak
asko moduz asten ba da.
- 6.- Esponiturik momentu artan
gutziz peligro andian
azkar Liborio Bedialauneta
jarri zan txalupa aurrian
eta arturik arpoi ta soka
bere besoan betian,
garboz tiratu eta sarturik
utzi zion aragian,
oso egoki enkajatu zan
lantza tripa barrenian.



- 7.- Ondo erituta jarri zanian
orduante bai kontuak,
Norestian barruna asi zan
zabaldurikan eguak,
buztan palakin zingatzen zuben
bapor aundien moduan,
momentu artan bildurtuko etzan
gizonik ez da munduan,
bere arpoia libratu nairik
errebenta zan orduan.
- 8.- Luzaro beian ibiliarren
etorri zan azalera,
iru lau aldiz eragin zigun
makiña bat gorabera,
bañon arturik era on baten
txikotakin gogoro bera,
aldatu giñion lengo lekutik
arpoia buru partera,
sokakin fuerte sagan arturik
abia giñan etxera.
- 9.- Goizeko amaika orduak ziran
lenengo jo zutenian,
gauba eginda zortzirak ia
legorrera zutenian,
zeinbat trabaju igaro zuten
oiek bien bitartian,
ezin lezake plumakin jarri
klaro begien aurrean,
ondar lekutan altxata utzi
zuten bizi zan artian.
- 10.- Ogei ta amabi pie zan luze,
pisuz zazpireun arrua,
ondoko arraya pustoki gabe
diote dala eskaulua
ez diñortxok ezagututzen
ai au piztiya modua,
Club Nautikuen bapor azkar
Bilbo aldera dijua,
ondarrutarrak sozio oidi
orra zer erregalua.
- 11.- Aillegatuta paratu zuten
Bilboko Ripa partian,
bear bezela esponiturik
almazen aundi batian,
soziedade klase guztiko
jakintsuak batu zian,
ta esaten zuten "Orlako arrairik
ez daukagu istorian,
merezi luke kontserbatzia
betiko EUSKALERRIAN".
- 12.- Gure bizkaino Martin Zabala
senadorea Madriden,
arrañak peska diskurtsu baten
klaro esplikatu zuben,
Ondarrutar balientiak
zelan arrapatu zuben,
eta Bilboko Diputau jaunak
nola kontserbau nai zuben,
operazio ori egiten
iya utziko al zuben.
- 13.- Arraña berriz ekarri dute
Bilbaotik Ondarruara,
gobernatu ta eskeletua
eramateko bertara,
mediku jaun ta destripadore
asko etorri da ortara,
len istorian ez dagon gauza
berri bat orra bistara,
gure Bilbaoko Institutuan
ikusiko da gustora.
- 14.- Au ikustia errial biña
kendu diote danari,
Ondarrutarrak kobratu dute
orrekin diru ugari,
milla peseta garbi premio
arraya jo zutenari
orain milla esker guzion partez
Club Nautikoko jaunari,
Biba Bilbao, biba Ondarroa
lagundu ola alkarri.

Kristobal Kolon, Nafarroako IVn Karlos erregearen Semea izan ote zan? (VI)

I Blankaren bizi kondairatik datorrena.

Monikako Konde Kabreratar Bernardok be gura eban beragaz ezkondu zedin, ta I Blanka indarrez arrapatu gurean ibili zan.

1.411ko Loraillaren illean Kabreratar Bernardo bere matxintasunezko alegiñagaitik epaitu ebenean, erregeen aolkularitzazko erakundeak I Blanka erregiñagaitik esan eban, erregiñak Siziliako eztabaidagitik bere Nafarroako senideai sekula ez eutsela eskatu laguntzarik, auek Siziliako arazoakaz ez ebelako euki ezer ikusirik.

1.412an Bagillaren 28an Aragoiko errege Antekerako I Fernandok, XIIIIn Aita Santu Beneditoren laguntzagaz eta Kaspen egin ziran antolabideakaz, beraganatu eban Siziliako erregetza.

Eta 1.412ko Azaroaren 21ean Siziliako gortekoak koroatu eben Aragoiko I Fernando Siziliako errege lez.

1.413an Uztaillako illean I Blankaren aizta Juana, Foix Konderriaren jabe eta Nafar erriñuaren ondorengo zarrena seme/alaba barik il zanean, guztiz aldatu ziran I Blankaren bizi ekintzak, bere aita IIIIn Karlosek, bere ondora joateko eskatu eutsonean.



1.415eko Jorraillan I Blankak, ia 13 urte ordezeko lanetan ibilita urten eban Siziliatik, Nafarroaren gortekoak aukeratu ebazan, Pierres de Peraltatar Mosen eta Asiaintar Juanen laguntzagaz.

1.416an Urrillaren 28an Nafarroako errege IIIIn Karlosek Olliten, bere alabaren eskaerari baimena emonda gero, Nafarroaren erregetzazko ondorengo lez izendatuta, ziñez itz emon bear izan eutson I Blankak.

Eta 1.419ko Azaroaren 5ean Nafartar gortekoak, Aragoiko erregearen seme Peñafieleko Duke, Mayorgako Konde, La-



rako jaun eta geroago errege izango zan IIⁿ Juanegaz atondu eben I Blankaren ezkontza, Nafarroako erregetzaren alde euki bear ebezan jabetasunezko baldintzarekin.

1.419an Abenduaren 5ean Oliten, ordezkotza bidez ezkondu ziran.

Eta 1.420an Bagillaren 18an Iruñako Ama Zuriaren Eleiz Nagusian ezkondu ziran eurak, I Blankak 35 urte zituela⁽¹⁾ eta IIⁿ Juanek 22 urtegaz (1.397an Bagillaren 29an Kanoko Medinan jaioa).

Euki zituzen seme/alabak, oneixek ziran:

1.421-1.461eko urte bitartea bizi zan IVⁿ Karlos, Bianako Lenengo printzea, Borgoñako Dukea ta IIIⁿ Felipen loba Kleberis'tar Ines'ekin ezkondata egon zana.

1.423-1.425eko urte bitartean bizi zan Juana.

1.424-1.464ko urte bitartean bizi zan Blanka, eta Gaztela Leongo errege izan zan IVⁿ Enrikegaz ezkondata egon zana.

1.425-1.479ko urte bitartean bizi zan Leonor, Nafarroako erregetzan ondorengoa zana eta Foix'eko IVⁿ Gaston, Foixeko Konde ta Bearn'eko Kondearen ordezkoa izan zanarekin ezkondata egon zana.

Edestiaren aria osterartuta.

1.421eko Loraillaren 29an I Blanka ta IIⁿ Juan Peñafielen egon zirala, jaio jakien lenengo seme Karlos, eta 1.419ko urtean ezarri ziran baldintzakaz, bera izendatu eben Nafarroaren erregetzazko ondorengoa, ama, I Blanka ilten zanean.

Jaiotzatik lau illabetera, Olmedoko Urian bateatu eben IVⁿ Karlos, bere besotako-aitak edo aitabitxiak, Gaztelako errege IIⁿ Juan aita ta Luna'tar Albaro Gaztelako Kondestablea.

1.422ko urtean I Blankaren aita Nafarroako errege IIIⁿ Karlosek deituta, irurak joan ziran Nafarroako errege Tafalla ta Oliteko errege jauregietan bizitzera.

1.423an Urtarrillaren 20an Tudelan izenpetu zan agiriagaitik, IIIⁿ Karlos Nafarroako erregeak, Bianako Printzerria sortu eban, bere billoba Karlos izanda erakunde orren leen printze edo ondorengoa.

(1) Baleiteke, 38 euki ebazan urteak eukitea 35 baiño.

Eta urte onetan jaio zan bigarren alaba Juana.

1.424ko Bagillaren 9an, Blanka irugarren alaba jaio jakien.

1.425ean Otsaillaren 2an Leonor jaio jakien.

1.425ean Dagonillaren 22an il jakien Juana alaba nagusiena.

Eta 1.425ean Iraillaren 8an, I Blankaren aita Nafarroako errege III In Karlos Biotz Onekua ilda ostean, I Blanka geratu zan Nafarroako erregiña lez.

1.425eko Azaroaren 29an geratu zan izendatuta I In Juan, Ribagorza ta Balentziako Konde lez.

I Blankaren bizitza Nafarroako erregiña lez.

I Blankaren bigarren senarra Aragoiko I In Juan onek, bera baiño 10-12⁽¹⁾ urte gazteago izanez gain, izakera gogorrekua izan zan, ta Aragoi ta Gaztelako lurraldetan euki zituzen jabetasun aundien norkeriagaz, Gaztelako lurraldeetan sarritan euki ebazan borrokazko esku sartzeak.



1.425ean Iraillaren 8an il zan Nafarroako errege III In Karlos “Biotz-Andikua” eta bertan geratu zan izendatuta I Blanka Nafarroako erregiña lez.

1.427an Dagonillaren 9an Nafarroako gorteak barriztu eben ziñezpena IV n Karlosen alde ondorengo errege lez.

1.428/1.429ko urte artean I In Juanek bere guda indar alegiñakin, eta Aragoiko mugaren lurralde batzuk galduta gero, gaztelarrek andik bota eben orduan, deitu eutson I Blankak Nafarroako errege lez koroatzea atzeratzen euki ebalako, eta alan urbildu zan bere ondora.

1.429an Lorailaren 15ean lau urte beranduago erregetzara igon ebanetik koroatu ebezan Iruñako Eleiz Nagusian Nafarroako I Blanka ta Aragoiko I In Juan. I In Juan erregiñaren ezkon-lagun lez.

1.439an Otsaillaren 17an I Blanka Nafarroako erregiñak il orduko bere borondatezko azkenai idatzi eban agirian, bere seme IV n Karloseri eskatzen eutson: ez egiala erregetzazko ardurarik artu, bere aita I In Juanek esan arte, eta I Blanka ama il zanean, aitaren ordezeko agintaritzazko artuko eban.

1.441ean Jorraillaren 1ean il zan I Blanka Nafarroako erregiña, bere alaba I In Blanka Gaztelako IV n enrikegaz Epailaren 31n ezkondata urrengo egunean, ta Nafartar gorteak Jorraillaren 3an Segobian Niebako errian, Erregearen Santa Maria Eleizan illobiratu eben.

Bere arri-illobia gaur, beren lekutik kenduta Kukullaren San Millaneko gela illun baten baztertuta dago, beste Napar errege askoren antzean.

Aragoiko errege I In Juan “Guzurti-Aundia”ren bizi kondaira.

Antekerako I Fernando eta Gaztelako Urrakatar Leonorren semea izan zan.

1.397ko Bagillaren 29an, Gaztelako Medina del Kanpon jaio zan, eta bere bizitzan artu ebazan andiki izenak: 1.425-1.479 urte bitartean Ribagorzako Kondea, Peñafieleko Duke ta Nafarroako errege, eta 1.458-1.479ko urte bitartean, Aragoi, Zerdeña ta Siziliako errege.

1.427ko dagonillaren 9an I In Juanek, bere begiko alaba izan zan Leonor izendatu eban ondorengo Iruñako gorteetan, bere beste seme IV n Karlos eta alaba I In Blankarekin orren ostean, maltzur eta guzurraren azpikerizko jokuetan asita.

1.429ko udan, I In Juan “Guzurti Andi” onek, antza, Nafarroako jaurkintzan ez ebalako euki zeregiñik, bere Aragoiko anaia-
ren diru ta ondasunezko irabazkiari laguntzearren, Enareseko

(1) I Blankaren adiñetan, azkeneko ikerketeta bidez, zalantza orreik agertzen diralako.



ibarretatik sartu zan Gaztelako lurraldeetara, eta Jadrakeko inguruan borroka antolatzen egoala, bere arreba Maria, Gaztelako II In Juanegaz ezkontuta egon zana sartu zan lez bitartean, or amaitu ziran Gaztelako lurraldeetatik Aragoiko II In Juanek egingo zituzen txangoak, eta urrengo urterako Gaztelako II In Juanen aurka antolatuta euki eban guda.

1.435eko urtean laguntza bardiñean ibili zan bere anai Aragoiko Vn Alfonso erregeak Napoleseko erreinuaren jabetasuna lortu egian, baiña utsegite andi baten amaitu zan.

1.436an Uztaillaren 30ean II In Juanek, Leonor bere begikotasunezko alaba ariñautik Foixeko IVn Gaston Kondeagaz egin eban ezkontzeko elkargoa baieztatuten dau, berentzat ezkon-sari lez Miranda, Larraga eta Falzeseko urien kontuan 50.000 florin emonda.

Eta guri geien arduratu egiten gaituelako, bere bizi kondaira, bere emazte I Blanka 1.441eko urtean il zanetik artuko dogu.

II In Juan bera izan zan bere 82 urtekin XIV-XVe-ko gizaldi bitartean, geiago bizi edo ta zarrenetari-ko erregea izango zana, 1.479an Urtarrillaren 20an Bartzelonan il zan arte.

1.441eko Jorraillaren 1ean, I Blanka il zanetik eta berak azkenai lez bere seme IVn Karloseri borondatez idatzita agindu eutsongaz, II In Juanek naspilduta euki eban bere seme IVn Karlos Nafarroaren erregetzazko zeregiñetan, IVn Karlos bere semea ezkerronekoa eta esanekoa izanez gain zordun be agertzen zalako, agindu orreik I Blanka amaren esanetan eroan ebazan, arik eta II In Juan aitak osteraz ezkontzen zala esan arte.

1.442ko urtean eta I Blanka ama il zan ostetik II In Juanek, Leonor bere alaba txikerra eta Foixeko Gaston Kondea ezkontu ebazan, berau bere senarraz Bearn'era bizitzen joanda.

1.444ko Jorraillan ezkontu zan Nafarroako II In Juan, Gaztelako amiral Enrikez'tar Fradike, ta Fernandez de Kordoba ta Ayalatar Marianaren alaba, Enrikez eta Fernandez de Kordoba ta Ayalatar Juanagaz 19 urte euki ebazala, bere aundizale, ospetzale ta dana gura ebenagaz.

Emendik aurrera ta I Blankaren azkenai bidez, II In Juanen jardunbidea bere seme IVn Karlosegaz gogortu egin zan ezin besterarte, bere emazte Enrikeztar Juana Lizarrara bialduta, IVn Karlosen errege-ordezko zeregiñak nastu ta oztopatzeko alegiñean, Nafartar erritarren artean asarre aundiak sortu ebana, eta IVn Karlos bere aitaren aurka asi zanean al eben gogortasunean, Nafartar erria zati bitan banandu ebana, beamontarrak Karlosen alde kokatuta, eta agramontarrak II In Juanen alde, 1.451n anaien arteko gudara eroan ebazanak.

1.445eko urtea baiña ariñautik II In Juanek, bere Gaztelako errege II In Juan koñatua ta onen gudal agintari nagusi Albaro de Lunagaz, betiko lurraldearen nagusitasunezko jabetasunetan ibilita, Atienza ta Torrijako Uriak artu ebazan, baiña urte onetan talde biak Olmedon aurrez aurre aurkeztu ziranean, Nafarroako II In Juanek naita Aragoitar gudalozteekaz batera egon, astiñaldi gogorra artu eban, eta borroka orregaz amaitu jakien aragoitarrai gaztelaniako gautatan euki ebezan indarrezko eragipen guztiak.

Nafartarren anai-arteko guda.

IVn Karlos Gaztelara joan zan, Asturiaseko Printzea ta Albaro de Luna kondestablearen laguntza eskatzera, oneik argi itxita, eurak ez zirala Nafarroagaitik borrokatzen, IIn Juanen aurka baiño, eta gaiñera zirikatzen dautsoe, aítak emoten eutson arrera txar ta otzagaitik, obeto ibiliko zala gaztelarrakin alkargotuta, bide batez oartuazota, zelan bere ama ordea aurdun egonda, ekarriko eben ondorengotasunagaz.

Ondoren, Asturiaseko Printzeak Albaro de Luna Kondestableari itaun au egin eutson: “Guk baiña, zer lortzen dogu Nafartarrai laguntzeagaz?”. Kondestable jaunak erantzun da: “izten dautsagun 40 urteko anaiguda”.

1.451n Iraillaren 8an IVn Karlosek eurakaz, alkartasunezko ituna sinatu egiten dau, eta Asturiaseko printzea ta Luna Kondestable oneik, inguratuta euki eben Buradoneko gaztelua itzultzen dautsoe.

1.451ean Urrillaren 23an borrokatu ziran talde biak Aibarreko zelaietan, eta IVn Karlosek astiñaldi andia artuta, IIn Juanek atxilotu eban Beaumot´tar Luis Nafartar Kondestableagaz batera.

1.452ean Epaillaren 10ean Enrikeztar Juana IVn Karlosen ama ordea, ariñeketan urten bear izan eben Lizarratik, bere semea Aragoiko legeak agintzen eben eran, Aragoien jaio zedin, eta or ibili zan larri, Nafarroaren mugako Sos erritxoan jaio zalako egun orretan, gero Aragoiko IIn Fernando katolikoa izango zana.

Eta Juana Enrikez onek, euken amurru aundiena erakutsiko eban



emendik aurrera, bere seme/alaba ordearen aurka, Leonor txikerrenagaz izan ezik, bere senar IIn Juaneri alegiñ orregaz bultzatuta, IVn Karlos eta IIn Blanka bere seme/alaba oneik erregetzatik alboratu egiezen, eta 1.455eko urtean IIn Juanek Nafar-erregetzaren ondorengoak ez diran lez aldarrikatu ondoren, biak pozoituta il ebazan.

Guda au ezan amaituko arik eta 1.512an IIn Fernando katolikua Iruña menperatuta, I Karlosek 1.522an Mayan, ta 1.523an Ondarribin, Nafartar askatasunezko Ikurrak menperatu arte.

Atutxa´tar Paul
Zornotzan 2.015eko urtean Epaillaren 17´an

Euskaldun barrientzat ikasten

Sudoku

8			7		9			3
	1		5		6		2	
		2				7		
		9	4		2	5		
5								6
		7	3		1	8		
		4				1		
	5		2		7		8	
9			6		4			7

4	5	2	4	1	9	8	3	6
7	8	3	7	6	2	9	5	1
6	9	1	5	3	8	4	7	2
2	6	8	1	5	3	7	9	4
9	3	4	8	7	6	1	2	5
1	7	5	2	9	4	6	8	3
5	4	7	3	8	1	2	6	9
8	2	9	6	4	5	3	1	7
3	1	6	9	2	7	5	4	8

IPUIN SARIKETA

Mesedez bialdu CD edo disketea

EUSKERAZALEAK ALKARTEAK, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZAK argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuinak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER-en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN etxean (Bilbaoko Colon de Larreategi, 14, 2ª eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer-en agertuko da, Urtarrillean.
- Sariak bost izango dira:

1. ^a	300 euro	4. ^a	120 euro
2. ^a	240 euro	5. ^a	60 euro
3. ^a	180 euro		
- Ipuinak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.
- Epea gabonillaren azkenera arte.
- Bialdu lanak elbide onetara: info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

EUSKERAZALEAK

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

.....tar

..... kalean (auzoan)..... zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN **"ZER"**. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

Euskerazaleak. Colon de Larreategi, 14-2. Tel. 94 423 53 22. Bilbao.

GABON EGUN

Gabon egun, Olentzero
Zeruetan argia
Goitik dator poz abes-otsa
Barri ona irrintzi egin
Ardi bordan jaio da gaur
Jesus Salbagillea.

Gabon egun, Olentzero
Jaunaren bakea
Gizon guztiei maitasuna
Gogo zintzoai poztasuna
Gau illunean sortu da
Argiaren eguna.

Gabon egun, Olentzero
Aintza ta aintza Jaunari
Maria de Jose deunari
Jesus ume bigun, onari
Mesias Jaunak egin dau
Gurean bizitoki.

Zenon Uriguen, Pasiotarra

